

Bost urteko begirada mugen gaineko errealitateari

Gaindegiak, Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Behategiak, bost urte bete ditu Euskal Herriko lurraldea egituratzeko lanean. Hala, zazpi lurraldeetan unean uneko gizartearen eta ekonomiaren egoera aztertu, islatu eta zabaldu du ahalegin horretan.

DANIEL UDALAITZ

JAIO eta bost urtera, bidezkoa da aitortzea Gaindegiak eginahal guztia egin duela sortzetik finkatutako helburuak betetzeko, nahiz eta arduradunek berek onartu alderdi batzuetan ez dutela helburu horiek betetzea lortu. Izan ere, horrelako herri ekimenek berezko dituzten zailtasunez gain, Euskal Herria hainbat administrazioetan banatu eta zatikatuta dago eta Behategiak horri aurre egin behar izan dio bere lanean.

Gaindegiak 2004ko maiatzaren 29an onartu zituen sortze-oinarriak, Iruñean, hain zuzen. Oinarri horietan, jada aipatzen zen zein zaila den inposatutako lurralde zatiketa bat tartean dagoela lan egitea, finkatutako helburuak lortzeko. “Inposatu diguten lurralde zatiketaren eraginez, eragozpen nabarmenak ditugu aipatutako hausnarketa eta ekarpen ondasuna bideratzeko. Sakabanaketa handia sortzen da eta horrek, oraingoz, galarazi egin du Euskal Herriaren errealitate ekonomikoa eta soziala ikuspegi osatu eta antolatuan proiektatzea”.

Sortu zela bost urte diren honetan, Gaindegia hainbat ekitaldi ari da prestatzen. Euskal erakunde hori barruagotik ezagutzeko eta urte hauetan guztietan egindako lan, txosten, dossier eta artikuluko ugariak eskuratzeko; hemeroteca kontsultatzeko interesa dutenek eskueran dute behategiaren webgunea:



www.gaindegia.org. Era berean, webgune horretan bertan jakin ahal izango dute nork osatzen duen erakundea, nola egin daitekeen bazkide edo laguntzaile, zein erakundek babesten duten eta abar.

Sorrerako hiru helburuak

Hiru ziren Gaindegiaren sorrerako helburuak. Lehena: Euskal Herriko egoera aztertzea. Erakunde eta administrazio publikoak, lan eta ekonomia munduko antolakundeak –sindikatuak, enpresaburuen elkarteak eta gizarte erakundeak–, unibertsitateak eta ikerkuntza zentroak esparru sozio-ekonomikoa aztertzen ari dira aspaldiko urteotan, gehienetan nork bere aldetik eta beren jarduneko mugen barruan.


Dokumentazio eta ikerlan ugari dago, zein baino zein interesgarriagoa, baina ikuspegi bateratua falta da. Hain zuzen, horixe da Gaindegiaren helburua: Euskal Herri osoko ikuspegi global eta bateratuari heltzea.

Bigarrena, loturak sortzea eta sareak garatzea. Euskal Herriko eragile sozioekonomikoen arteko loturak sustatzea, elkar ezagutza bultzatzea, teknologia eta jakintzaren transferentziari bide ematea, organismoak eta haien proiektuak lurralde ikuspegitik egituratzen laguntzea, berdin enpresa erakundeekin, lan elkargoekin, sindikatuekin, profesionalekin zein kazetari-sareekin. Alegia, lurraldeen artean zein lurralde bakoitzaren barruan dauden desorekak aztertzea eta desoreka horiek gainditzeko bideak aurkitzea.

Azkenik, informazioa zabaltzea eta eztabaida bultzatzea da Gaindegiaren sorrerako hirugarren helburua. Horretarako, Euskal Herria egituratzeko eta garatzeko lanean sakontzen saiatzen da behategia, Euskal Herriaren egungo irudia zabaltzeko. Eragileen arteko bidezko lehiakortasunari muzin egin gabe, erakutsi nahi da badagoela aukera izaera nazionala duten proiektuak garatzeko, horretarako estrategia mailako eztabaidak bultzatuta.

Autokritika

Gaindegiako arduradunek ez dute ezkututzen zer zailtasun dauden



Atlasa.net

Gaindegia hasiera-hasieratik jabetu da zein garrantzitsuak diren teknologia berriak mezuak eta lanak zabaltzeko. Webguneaz gain, behatoki honek beste lanabes teknologiko garrantzitsu eta interesgarria jarri du jendearen eskuetan: www.atlasa.net. Gune horrek Euskal Herriko gizartearen eta ekonomiaren egoera zein den jakiteko aukera ematen du. Gainera, lanabes hori egunez egun hobetzea da asmoa.

Interneteko atlas estatistikoa da atari hori. Geografia eta Euskal Herriko gaur egungo datuak konbinatzen ditu. Euskal Herriko gizartearen eta ekonomiaren egoera hobeto ezagutzeko diseinatu dago, baita Euskal Herria munduan kokatzeko ere.

Euskal Herriko ekonomiaren eta gizartearen atlas lau hizkuntzatan dago: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. Proiektua garatzeko, hainbat erakunderen laguntza izan du Gaindegiak; Eusko Jaurlaritzarena, Gipuzkoako Foru Aldundiarena, Eustatena, Euskal Herriko Unibertsitatearena eta Gezki-rena, hain zuzen ere.

helburu handi horiek gauzatzeko eta beren buruari kritika egiten diote aurrera begiratzeko eta, helburu guztiak betetze aldera, baldintzak hobetzeko. Hala, lehen helburuari dagokionez, Gaindegiak egindako lana oso emankorra izan da eta frogatuta geratu da badagoela aukera nazio mailako dimentsio ekonomiko eta sozial hori garatzeko: Datu Talaia baseak, adierazle ekonomikoek eta abarrek horixe erakusten dute. Bigarren helburuari dagokionez, Gaindegiak onartu du, borondateak borondate, ezin izan dituela bultzatu ekonomiaren eta gizartearen esparrua egituratzeko espazio nazionalak; espazio horiek lortzeko ahaleginetan ezin izan duela eragin, alegia. Hirugarren helbu-

ruari buruz, berriz, hainbat jardunaldi, mintegi eta abar egin badira ere, Gaindegiako arduradunek onartu dute badirela mugak; proiektua maila kualitatiboan eta kuantitatiboan gizarteratzeko mugak, hain zuzen.

Aurrerantz

Gaindegiak konpromisoa hartu du aurten ere jakintza sortzeko eta zabaltzen jarraitzeko. Erakunde moduan indartu nahi du eta eragile sozio-ekonomikoekin elkarrizketa ere sendotu nahi du. Krisi garaian, behatoki honek ere jasan du eragina eta, horrenbestez, egitura aldetik gastuak murriztea eta finantziarioa eta auto-finantziarioa sendotzea da helburua. ■

Olaberriako zirkuitua

Gida eskola Karting-a



Gainera auzoa, Z/G
20212 Olaberria
☎ 943 16 08 62
www.vilarinomotor.com
info@vilarinomotor.com